



LEZOKO ANTZERKI TESTU LABURREN II. LEHIAKETARAKO KARTEL LEHIAKETA

● DEIALDIAREN ZEHAZTAPENAK ●

1. Kategoria bakarra.
2. Lehiaketan parte hartzeko baldintza da Euskal Herritarra izatea, hau da, euskararen territorio linguistikoko hiritarra (Euskal Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa).
3. Egileak 18 urteak beteta izango ditu.
4. Bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.
5. Teknikari dagokionez: ilustrazio, marrazkia edo collagea erabiliko dira.
6. Kartelak JPG formatuan aurkeztuko dira. Tamaina: Din A3 (297mmx420mm). Artxihoak ezingo du 8 Mb baino gehiago pisatu eta formaz bertikalak bakarrik onartuko dira.
7. Ez da irudi matxistarik erabiliko, ezta askatasunaren edo giza eskubideen kontrakorik.
8. Hiru kartel aurkeztu beharko dira:
 1. diseinua: LEZOko 2. Antzerki Testu Laburren lehiaketa.
 2. diseinua: LEZOko 2. Irakurketa Dramatizatuen Partida.
 3. diseinua: LEZOko 2. Irakurketa Dramatizatuen Partida SARIA.
9. EPEAK: **Maiatzak 14tik ekainak 4ra** (eguardiko 14:00ak arte) aurkeztu ahal izango dira hurrengo helbidean: **mdimalta@lezo.eus**
10. Partehartzaileek kartelekin batera beste artxibo bat bidali beharko dute euren datuak jarrita: izen abizenak, jaiotze data, NAN zenbakia, helbidea, telefonoa, emaila eta karnet itxurako argazki bat. Datu hauekin batera kartelaren identifikazio izena ere bidaliko da.
11. Kartel bakoitza izenburu batekin identifikatua bidaliko da. Epaimahaia izen hau bakarrik jasoko du. Kartel irabazlea aukeraturakoan bakarrik jakingo da norena den.
12. Epaimahaia 3 pertsonen osatuko dute: Lezoko Kultur teknikaria eta diseinu grafikoan edo Arte ederretan bi aditu.
13. Epaimahaia orijinaltasunari, erabilitako teknikari, eta gaiari lotzen dion egokitasunari erreparatuko dio.
14. Irabazlea ekainaren 6ean iragarriko da, Lezoko 2. Antzerki Testu Laburren lehiaketaren abiatzearekin batera.
15. SARI bakarra emango da. Irabazleak **650 euro** (zerga guztiak barne) jasoko ditu emaitza esan eta aste betera. Irabazleari urriaren 5ean ospatuko den PARTIDA festara gerturatzeko eskatuko zaio, testu lehiaketako irabazlearekin batera argazkia ateratzeko. Baldintza hau ezinbesteko izango da.
16. Jabetza intelektuala: HIKA Teatroaren eta Lezoko Udalaren eskuetan geratuko dira industria jabetzako eta jabetza intelektualeko eskubide guztiak kartelen eta lehiaketa xedeko korporazio identitate gainerako piezen gainean. HIKA teatroak eta Lezoko udalak elementu horiek eskusiboki erabiltzeak ez du aditzera eramango esleipedunari ez hirugarrenko pertsoneri jabetza horiei buruzko inolako eskubiderik ematen zaionik, eskubide horiek ematea kontratua osatzen duen zatia baita. Kartelen eta egokitzapenen jabetza intelektualeko eskubideak ere bai.
17. Lehiaketara aurkezteak baldintza guztiak onartzen direla esan nahi du.

